

Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga

Paula Kasares

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

paula.kasares@unavarra.es

Sarrera-data: 2014-11-25 / Onartze-data: 2014-12-19

Laburpena: Artikulu honen xedea euskararen belaunez belauneko jarraipenari heltzeko eredu teoriko-metodologikoa proposatzea da. Idazlanak bi zati nagusi ditu. Lehen zatian hizkuntza gutxituen eta euskararen gizaldirik gizaldiko segida aztergai izan duten lanek erabili dituzten ikerbideak eta kontzeptuak agerian utzi eta hori eginik, euskararen jarraipenaren egungo gertakariari behatzeko aztermolde eta adigai horien egokitasunaz hausnartuko dut. Bigarren zatian haurrak euskaldun haztea helburu dugula, paradigma berri bati loturiko eraginbideak proposatuko ditut. Funtsean, artikulu honetan ikerketa sistematikoaren beharra aldarrikatu eta euskararen belaunez belauneko jarraipenaren ikerketa lerro baterako oinarriak paratu nahi ditut. • **Gako-hitzak:** *Hizkuntza gutxituen jarraipena, hizkuntza sozializazioa, hizkuntza transmisioa.*

Abstract: This paper sets out to put forward a theoretical and methodological model to tackle the monitoring of Basque from one generation to the next. It has two main sections. In the first part, I will be clarifying the lines of research and concepts used by the works that have dealt with the generational succession of minority languages and Basque, and then I will be reflecting on the appropriateness of these analyses and concepts for observing the current phenomenon of the monitoring of Basque. In the second part, I will be putting forward ways of influencing linked to a new paradigm in our aim to bring up children as Basque speakers. Basically, in this paper I want to call for the need for systematic research and to establish the bases for a line of research into the generational monitoring of Basque. • **Key Words:** *Monitoring minority languages, language socialisation, language transmission.*

1. EUSKARAREN JARRAIPENA. IKERBIDEAK ETA KONTZEPTUAK BERRIKUSTEN

I

1.1 Hizkuntza gutxituen iraupena

Gauza ageria da hizkuntzen iraupena belaunez belauneko jarraipenean funtsatzen dela. Halaz guztiz, mintzairen gizaldiz gizaldiko segida ez da soziolinguisten arreta bildu duen gaia izan. Hizkuntza gutxituen gaineko literatura zientifikoan urriko dira mintzaira atxikitzea eta beraz, belaunaldi berriek hura ikasi eta erabiltzeko baldintzak bermatzea erdietsi duten hiztun taldeen adibideak. Fasoldek (1995: 227) nabarmendu bezala, ikertzaileen interesa ez ohi da hizkuntza gutxituen atxikitzeko gertakarietara zuzendu (migratutako taldeen kasuan izan ezik) eta mintzaira horiei irauarazteko ahalegin eta estrategia sozialak maiz ikusezinak izan dira gizarte zientzien literaturarako. Ikertzaileek *tradizioaren irautea* ikusi ohi dute, ez *tradizioari eustea* edo *tradizioari irauaraztea*, Fishmanek (1997: 389) ohartarazi duenez.

Orobat, bakan batzuk baizik ez dira galera prozesu historiko baten ondoren gizarte erabilera apal-apala izanda indarberritu diren hizkuntzen kasu dokumentatuak. Mintzaira ordezkatzeko bilakaera ordea, hagitzez sarriago eta zehazkiago jorratu izan da eta beraz, egun hobeki ezagutzen dugu hiztun talde baten hizkuntza historikoaren jarraipenaren etena eta ordezkapena, erasanda dagoen mintzairari eutsi eta hura suspertzeko motibazio eta bideak baino.

Mintzaira gutxituen gizaldiz gizaldiko segida hizkuntza atxiki eta ordezkatzeko (*language maintenance and shift*, Fishman, 1964) ikerketa arloan jorratu da eta ekarpenik osoenak bi prozesuak, mintzairaren iraupena eta iraungipena, gizartearen jarraipenaren eta aldaketaren testuinguruan kokatu eta batera biltzen dituzten ikuspegietan daude. Ikusmolde horretan hizkuntzari eustea eta mintzaira uztea hiztunen hautu-erabakiei loturik ikusi duten egileak eta, partikularki, alderdi soziokulturalek haien portaeretan duten eragina nabarmendu dutenak (Weinreich, 1979; Fishman, 1972, 1997, 2000; Fasold, 1995) dira, nire idurikotz, bereziki ernagarriak.

Hizkuntza atxiki eta galtzeko gertaerak ikermolde desberdinetatik aztertu dira, ikuspegi soziologikotik eta antropologikotik batez ere. Soziologo eta soziolinguistek ikerketa kuantitatiboak nahiago izan dituzte eta zentsu-erroldeko eta inkestetako datu estatistikoetan oinarritu ohi

Mintzaira ordezkatzeko bilakaera ordea, hagitzez sarriago eta zehazkiago jorratu izan da eta beraz, egun hobeki ezagutzen dugu hiztun talde baten hizkuntza historikoaren jarraipenaren etena eta ordezkapena, erasanda dagoen mintzairari eutsi eta hura suspertzeko motibazio eta bideak baino.

dira (Fishman, 1964 eta 2000, kasurako). Halere, zenbait egilek (erraterako, Appel & Muysken, 1990: 23), deterministatzat jo dute ikusmolde makrosoziologikotik, eta batik bat *domain* eta *diglossia* kontzeptuetatik, eraturako ereduak batik bat jardun-gune jakinetan indarrean dauden gizarte arauak begiratzen baitiete, eta aldiz, hiztunek gizarte errealtatea eratu, interpretatu eta eraldatzeko dituzten bideei oharitzen ez zaizkielako.

Hizkuntza gutxituen jarraipena aztertzeko soziologiaren azterbide makro eta kuantitatibotik egindako ikerlanak usuak dira, adibidez: eskozieraren kasua MacKinnon & MacDonald (1980), katalanarena Vila (1993), galegoarena Loredó & Formoso (2014).

Hizkuntzari eustea eta hizkuntza ordezkapena ikermolde kualitatibotik jorratu duten lanen artean ikuspegi antropologikoa da gertakari horien funts etiologikoan sakontasunik handiena erdietsi duena (horren erakusgarri: Gal, 1979; Dorian, 1981). Azterbide hori jorratu duten iker-tzaileendako hiztunen hautuek beren kultura balioak islatzen dituzte eta hautu horiek hizkuntzaren irauteari edo galtzeari eragiten diote. Hizkuntza gutxituen transmisioaren gainean egindako ikerketa kualitatiboan erakusbide, Valentzian egindako hauek: Montoya (1996) eta Montoya & Mas (2011).

Hala bada, ikertzaileek hizkuntza gutxituen belaunik belauneko jarraipena ikuspegi eta diziplina desberdinen azpian, baita kontzeptu desberdinen kategorizaziopean ere aztertu dute. Literatura soziolinguistikotik batik bat *language transfer* edo *transmission* (Fishman, 1997) eta *reproduction* (Nelde et al., 1996) erabiltzeko joera izan da.

Halaz guztiz, hurbilkera kualitatiboan artean, hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko segida aztertzeko hondar urteotan garatu den *language socialization* ikerketa arloari deritzot bereziki aipagarri. Ondoko ataltxoa hari eskainiko diot.

1.2 Hizkuntza gutxituen jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigman

Honen aitzineko lan batean (Kasares, 2012a) azaldu dudanez, azken hamarraldietan literatura antropolinguistikotik anglosaxoian hizkuntza transmisioa *language socialization* ikerketa arloan jorratu da. 1980ko hamarkadaren erdialdean Estatu Batuetako zenbait hizkuntzalari eta antropologo hizkuntza sozializazioaren ikerketa lerroa garatzen hasi ziren. Arlo horretako ikertzaileek giza garapenera hurbiltzeko diziplina izan

dituzte abiaburu (antropologia, [sozio]linguistika, soziologia eta psikologia), aztertzen dituzten gertakarien ikusmolde ahal den holistikoena eta integratzaileena eratzeko.

Sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da. Prozesu hori —berez, elkarri estuki loturik dauden prozesu multzoa— hein handi batean hizkuntzaren erabileraren bidez burutzen da, mintzaira baita kulturaren ezagutza komunikatu eta irudikatzeke, negoziatu eta auzitan paratzeko, birsortu eta eraldatzeko bide sinbolikorik behinena.

Elinor Ochs eta Bambi B. Schieffelin (1984/1992) egileen ikusmoldean, sozializazioa prozesu jarraitu eta amaigabea da, haurtzarora mugatzen ez dena, heldu jendeak rol, estatus edota jarduera berrietan sozializatzen jarrai baitezake. Hizkuntza sozializazioa haurraren gizarte harremanak hasten diren unean abiatzen da —hizketan hasi baino lehenago ere— eta gizon-emakumeen bizitza osoan jarrai dezake. Hizkuntza sozializazio ikerketa arloak honako hau ulertzea du helburu: gizon-emakumeak nola bilakatzen diren gizataldeko kide eta prozesu horretan hizkuntzak nola jokatzen duen, hau da, “...the understanding of how persons become competent members of social groups and the role of language in this process” (Schieffelin & Ochs, 1986: 167). Hala bada, hizkuntza sozializazioak mintzairaren ikastea baino gehiago biltzen du bere baitan, giza garapenaren alderdi guztiak ukitzen dituzten kultura eraginak. Hauen artean hizkuntzaz jabetzea bat gehiago da, funtsezkoenetako bat, halere, alderdi askotariko hari hertsiki loturik daude eta.

Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu, haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren erabileraren bidez eta nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko (ibid., 184). Paradigma horretan hizkuntza sozializazioa prozesu dinamikoa, elkarreragilea, bizitza osoan dirauena eta inguruneari lotua da.

Hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragileak *transfer* edo *transmission* ideia, hau da ohiko kontzeptu horien baitan dagoen goitik beheitik eta norabide bakarreko (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana) prozesua izatearen adiera gainditzen du. Haur txikiak ez dira balizko transmisio baten jasotzaile pasibo hutsak. Umeez ere beren familiako kide helduak sozializatzeko ahalmena dute (ibid.) eta, berez, prozesua noranzko biko da (*bidirectionality in socialization*, Garrett &

Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu, haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren erabileraren bidez eta nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko (ibid., 184). Paradigma horretan hizkuntza sozializazioa prozesu dinamikoa, elkarreragilea, bizitza osoan barnakoa eta inguruneari lotua da.

**Haurrek
hizkuntza
—kodea— ez
ezik hizkuntza
erabiltzeko
gizarte arauak,
hizkuntzen
arteko hierarkia
eta halakoak ere
barneratzen
dituzte.
Sozializazio
elebiduna izan
duten haurrek bi
hizkuntzak
ikastearekin
batera bi kodeak
nola erabili, non,
norekin eta
zertarako, bi
kodeak noiz
bereizi eta noiz
nahasi ere
ikasten dute.**

Baquedano-López, 2002: 346). Ikermolde honetan haurren hizkuntza sozializazioa noranzko bakarreko prozesutako ikusi beharrean, erabilgarriagoa da familiaren elkarreraginaren sare dinamiko gisa ikustea. Izan ere, gurasoek haurren hizkuntza jarduerak eta jarrerak eratzen dituzte, baina familiaren “hizkuntza ekologian” haurrak eragile dira, objektu baino gehiago: “For this reason, socialization should be viewed in terms of ‘participation’, rather than merely ‘transmission’” (Luykx, 2003: 41).

Hizkuntza sozializazioaren arloan egindako estreinako ikerketek hizkuntzaz jabetzea eta hizkuntzaren bidezko sozializazioa bi prozesu berezizat hartu ohi dituen ikuspegia kritikatu zuten, bi gertakarien artean dagoen lotura estua agerian utziz (Ochs & Schieffelin, 1992). Hala eta guztiz ere, sozializazioak ez dakar jokabide eredu finkorik. Ikuspegi honek gizakiak malgutzat eta gizarte eta hizkuntza aldaketara egokitze gaitzat hartzen ditu. Beraz, egile horiendako sozializazioa ez da prozesu mekaniko determinatua gizon-emakumeak aldaketetarako gai baitira. Ildo horretatik, sozializazio kontzeptuak egitura sozialen erreproduktzio (edo *ugalketa*) hutsaren ideia gainditu eta ingurura doitzeko prozesuan gerta daitezkeen *desbideratzeak* ere kontuan hartzeko bide ematen du. Hori horrela, ikertzaileek ohartarazi bezala, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak jarraipen eta aldaketa soziokulturala, biak, ditu aztergai: “The language socialization paradigm offers a socioculturally informed analysis of life course and historical continuity and transformation” (Ochs & Schieffelin, 2008: 11).

Hizkuntza erabiltzeko sozializazioaren arloan ikertzaileek aztertu izan dutena da haurrek zer nolako hizkuntza jokaera dituzten beharrezkoak eguneroko gizarte bizitzan egoki parte hartzeko. Azterketa horiek gizarte eremuetan (etxean, eskolan, erlijio jardueretan, aisialdian...) dauden hizkuntza jokaera egokiari dagozkion igurikipenen jarraipena eta etena (*continuity and discontinuity*) nabarmendu dute (Schieffelin & Ochs, 1986). Hau da, haurrak hizkuntzaren erabilerarako arauaz jabetzen dira mintzaira gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta: “Children acquiring language acquire knowledge of the language or languages in their sociolinguistic environment” (ibid., 171). Beraz, haurrek hizkuntza —kodea— ez ezik hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte. Sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dute (Luykx, 2003: 41).

Hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketek egin duten ekarpen handienetako bat eguneroko bizitzari aitortu dioten garrantzia da: “... everyday life —the mundane activities and interactions in which ordinary individuals participate, constituting the warp and woof of human sociality” (Garrett & Baquedano-López, 2002: 343). Eguneroko solasaldi arruntak hizkuntza jarduera gisa ikusteak mintzaira errutinei erreparatzeko bide ematen du. Azken finean, sozializazio prozesuan helduek haurrari eguneroko hizkuntza jardueretan (errutinetan) parte harrarazten diote (Schieffelin & Ochs, 1986).

Bertzalde, hizkuntza sozializazioaren paradigmatik ekarpen funtsezkoa egin du norbanakoaren, taldearen eta gizarte antolaketa arteko harremana aztertzeko, ikusmolde mekaniko, determinista edo tirabira eta gatazkarik gabekoa gaindituz (Garrett & Baquedano-López, 2002: 352). Ingurune elebidun edo eleaniztunetan etnia, kultura identitate, moral eta nortasun kontzeptuek hizkuntza sozializazioari eragiten diote. Erkidegoak (berr)eratzten eta (ber)definitzen dira eta hizkuntza sozializazioa ikertzen dutenek aztertzen dutena da norbanakoek nola berresten eta negoziatzen dituzten beren identitateak, batzuetan aldakorrak direnak, ingurune heterogeneo horietan (ibid.).

Hizkuntza sozializazioa ez da beti-batekoa edo monolitikoa, ez eta molde unibertsalekoa ere, eta erabilera ez homogenea izaten du. Gainera, hizkuntza erabilera ereduak denboran alda daitezke zenbait faktoreen arabera. Gurasoek hautatu egiten dute seme-alabei zein mintzaira transmititu baina aita-amek hautu hori, behin —haurra sortzen delarik— ez ezik, gehiagotan ere egin dezakete seme-alaben umezaro eta haurtzaroan (Chrisp, 2005).

Azken batean, hizkuntza sozializazioa momentu-testuinguru zehatzari dagokio. Hau da, mintzairari buruzko oharrena edo hizkuntzen gizarte banaketa bezalako faktoreen arabera da. Jendeak mintzairaren gainean dituen ideiek jendearen hizkuntza jokamoldeei eragiten diete. Baina hizkuntzaren gaineko ideiak —hau da, hizkuntza bera zer den eta kultura identitatearekin eta norbanakoaren identitatearekin zer harreman duen— komunitateen artean ez ezik komunitate bakar baten barnean ere alda daitezke (Garrett & Baquedano-López, 2002: 354-355).

Hala bada, hizkuntza sozializazioak subjektuen historiari begiratzen dio, sozializazio elkarreraginaren azpian ideologiei eta botere harremanei antzeman nahian. Hizkuntza jokabidearen eta kultura ideologiaren arteko harremana aztertzeko, ikerketa arlo honek teknika etnografikoa izaten

**Hizkuntza
jokabidearen eta
kultura
ideologiaren arteko
harremana
aztertzeko,
ikerketa arlo
honek teknika
etnografikoa
izaten du oinarri
eta behaketa eta
elkarrekintzak
batik bat etxe-
familia inguruan
egiten badira ere,
ez dira etxe
barrenera, ez eta
etxekoaren arteko
eguneroko
elkarreraginetara
ere mugatzen.
Ikerlanak
iraupen luzeko
azterketak izaten
dira eta kultura
arteko
konparazioa
izaten dute xede.**

du oinarri eta behaketa eta elkarrekintzak batik bat etxe-familia inguruan egiten badira ere, ez dira etxe barrenera, ez eta etxekoen arteko eguneroko elkarreraginetara ere mugatzen. Ikerlanak iraupen luzeko azterketak izaten dira eta kultura arteko konparazioa izaten dute xede.

Hainbat egileren (Garrett, 2012; Friedman, 2012; Nonaka, 2012) iritziz, hizkuntza sozializazioaren ikerketa paradigmatik erabiltzen dituen metodologia, hurbilpen analitiko eta ikuspegi teorikoengatik hizkuntza gutxiagotze eta ordezkatzeko prozesuak ez ezik, mintzaira atxikitze eta indarberritzeko bilakaerak ere ulertzeko ekarpen handia egin dezake. Hala eta guztiz ere, hizkuntza sozializazioaren arloko ikerlan gutxik hartu du mintzaira gutxituen egoera aztergai eta gainera, horietako gehienek landa eremuko nekazaritza komunitate txikiak ikertzeraz jo dute. Orobat, paradigma honek ez du Europako hizkuntza gutxituen ikerketarako oihartzun handirik izan (dauden ikerlan urrien artean hauek aipatuko nituzke: Fellin, 2002; Morris & Jones, 2008; Jones & Morris, 2009). Gurean Nafarroako euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeko erabili izan da eta paradigmatikaren baliagarritasuna frogaturik gelditu da (Kasares, 2012a, 2014b).

1.3 Euskararen jarraipena euskal soziolinguistikan

Hizkuntzaren gizaldiz gizaldiko jarraipena, hau da, belaunaldi berriak euskaldun haztea euskararen iraupenerako baitezpadakoa dela aspaldian jakina bada ere eta euskal soziolinguistika eratu zenetik ikertzaileak nahiz euskalariak horretan bat heldu badira ere, berriki artio, ez ikertzaileek ez hizkuntza politikaren arduradunek ez ohi diote gertakari horri arreta berezirik eman.

Hizkuntza politika instituzionalean oro har ez zaio modu egokian erantzun. Euskararen jarraipena bermatzeko eta haren ezagutza nahiz erabilera zabaltzeko 1970eko hamarralditik aitzina egindako ahaleginek eskolaren edo heziketa formalaren esparrua lehenetsi zuten. Hizkuntzaren premia kuantitatiboei erantzun behar zitzairen, nahitaez; euskarak hiztun berriak behar zituen eta ikastolen zein gau eskolen gizarte mugimendua Euskal Herri osora hedatu zen. Ondotik, ele biko irakaskuntzak, euskara bigarren hizkuntza duten ikasleen gaitasunak eta euskararen transmisio kulturalari dagozkion halako gaiek jaso zuten, batik bat, ikertzaileen ardura. Hondar urteotan aldiz, zenbait hamarkadako eskarmentua metaturik, esparru informalarik, alegia, familia bidezko transmisioari eta, oro har, haurrak hiztun bilakatzeko prozesuari euskara indarberritzeko duen lekua aitortzen hasi zaio.

Orobat, ikertzaileek ez ohi dute horren gaineko hausnarketa teorikorik jorratu eta gure esparru akademikoan ez da euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeko ikerketa lerro sistematikorik garatu. Azken hamarkada artio, oro har, euskararen transmisioa aztergai izan duten ikerlanak, alde batetik, gutxi izan dira, eta bertzetik, lan urri horiek ez diete, funtsaren funtsean, gaiaren sakoneko arazoei erantzun. Euskal soziolinguistika maila teorikoan maila aplikatuaren gibeletik joan da eta euskara teknikariek, hizkuntza dinamizatzaileek nahiz haurren euskararen erabileraren sustapenean diharduten hainbat eragilek bi hamarkada daramatzate hizkuntza transmisioaren alorrean lanean teoria soziolinguistiko egoki baten itzalik gabe.

Euskararen gizaldiz gizaldiko segidari buruzko azterlan soziolinguistiko gehienak makrokuantitatiboak dira (Larrañaga, 1986; Siadeco, 1994ab; Zinkunegi, 1995; Arruti, 1997; Eusko Jaurlaritza, 2005ab, 2008; Sagardoy, 2008, bertzeak bertze). Ikerketa molde horrek guraso euskaldunek beren ondorengoei euskara transmititzean izan duten joera itxuratzeko zenbait datu kuantitatibo eman ditu, datu horiek zenbait aldagairekin (gurasoen hizkuntza gaitasunarekin edota bizitokiko ezaugarri soziolinguistikoekin) gurutzatu dituzte baina, oro har, datu kuantitatibo horietaz gain, euskaraz hazteari lotutako bertzelako azalpen kualitatiborik ez dute adierazi. Hizkuntza transmisioaren gaineko azterketetan kontzeptuaren bi maila edo bide bereizi izan dira: lehenik, transmisio naturala, informala, gurasoek etxean gauzatzen dutena; eta bigarrenik, transmisio kulturala, formala, eskolak bideratzen duena (Zinkunegi, 1995: 76).

Azken urteotan haurren euskararen erabilerari eragiten dioten alderdiak biltzen dituzten ereduak proposatu dira (Martínez de Luna, 2004, 2012; Soziolinguistika Klusterra et al., 2009; Soziolinguistika Klusterra, 2011). Proposamenek euskararen erabilera maila desberdinetan jokatzeko duten hiru faktore multzoren (norbanako mailakoen, gizarte harremanen mailakoen eta gizarte erakunde mailakoen) elkarreraginaren ondorioetako hartzen dute. Gurera etorrita, hizkuntza sozializazioa mintzairaren erabileraren bidez gauzatzen baita, proposamen horiek haurrak euskaraz haztea gurasoen hizkuntza gaitasun nahiz gogo-nahien mailan ez ezik, inguruneko egoera soziolinguistikoan, harreman sareetan, mintzairaren estatusetan eta gizarte oharmena bezalako alderdi mikro eta makrosoziologikoen mailetan ere kokatu beharra dagoela iradoki dute. Halere, euskararen belaunez belauneko jarraipenari begira alderdi subjektiboak, ingurunekoak eta egiturazkoak uztartzen dituen ikuspegia ia ez da jorratu.

**Euskal
soziolinguistika
maila teorikoan
maila
aplikatuaren
gibeletik joan da
eta euskara
teknikariek,
hizkuntza
dinamizatzaileek
nahiz haurren
euskararen
erabileraren
sustapenean
diharduten
hainbat eragilek
bi hamarkada
daramatzate
hizkuntza
transmisioaren
alorrean lanean
teoria
soziolinguistiko
egoki baten
itzalik gabe.**

Ikusmolde soziologikotik egin diren azterketei gertakariaren barrengo alderdiak azaleratzeko muga teoriko-metodologikoak antzeman daizkieke eta ikerketa kualitatiboek sakontasun handiagoa ahalbidetzen dute. Azterlan mikrokualitatiboen urritasuna gorabehera, hauen artean -batez ere metodologia etnografikoaz baliatu direnen artean- daude, nire iritziz, ikerlanik interesgarrienak. Hona hemen aleturik:

Jose M^a Sánchez Carrión *Txepetx* soziolinguistak (1972 eta, batik bat 1981, Nafarroako Mendialdean egindako azterketa antropolinguistikoa) zehazki euskararen familia bidezko transmisioa aztergaitzat hartu ez bazuen ere, gaia ordura artio landua ez zen modu kualitatibo eta sakonean jorratu zuen. Sánchez Carrionek euskararen belaunez belauneko jarraipenerako eredu sexuglosiko eta dikotomikoa proposatu zuen. Hiztun taldearen segidaren eta trinkotasunaren oinarrian gizezkoen arteko kidesun harremanak ikusi zituen eta, oro har, emakumezkoen hizkuntza portaera erdaltzalea gaitzetsi zuen. Berebat, euskararen eta gaztelaniaren bizipen eta oharren desberdinak azaltzeko antinomietan antolatutako hizkuntzen kategorizazioaz baliatu zen: euskara/erdara, barnekoa/kanpoko, hemengo/hango, etxekoa/eskolakoa, herrikoa/hirikoa...

Ikerlan horien ondotik, interesa euskararen gizaldirik gizaldiko segidan —bete-betea edo hein batean bederen— paratu duten azterketa kualitatiboaren artean hauek ditugu aipagai: Jacqueline Urlak Usurbilen egindako landa lana (1987) eta Teresa Del Valle Korrikaren gainean egindakoa (1988). Biak ikerlan etnografikoak dira, antropologoen eginak, eta hurbilkera metodologiko horren baliagarritasuna sendesten dutenak. Xabier Erizek (1997) Nafarroako historia soziolinguistikoa jorratu zuen eta Uitzin egin zuen landa lana. Euskararen belaunez belauneko jarraipena —berak *hizkuntza komunitatearen ugalketa* deitua— *habitus* (Bourdieu, 1989) kontzeptu soziologikoan zurkaiztu zuen. Josune Iraolak (2002, 2004) lehen aldiz euskararen transmisioaren artezketa kualitatiboa hirigune erdaldundu batean egin zuen, Pasaian. Jone Miren Hernández antropologoaren lana (2007) gurean egiteke zegoen euskararen transmisioaren azterketa semiotikoa da. Haren ikerketak euskararen transmisioari loturiko esanahiak eta hiztunen hizkuntza atxikimenduen oinarrian dauden zentzuak arakatu ditu. Darabiltzan ikuspegi teoriko zein metodologikoagatik eta soziolinguistikan nagusi izan diren zenbait eredu nahiz kontzeptu zurrunen aitzineko jarrera kritikoagatik, Hernandezen ikerlana egun euskararen belaunez belauneko jarraipenari heltzeko baitezpadakoa.

Hondar urteotan transmisioari heltzeko hiztunen subjektibotasunari eta hizkuntzei loturiko emozioak aztertzea proposatzen duen ikusmoldea hasi da garatzen gure artean. Euskararen familia transmisioaren arloan berriki egin diren azterketa eta esku hartzeko programek emozioen garrantzia nabarmendu dute (Jauregi & Suberbiola, 2009; Elortza et al., 2009).

Euskaraz, *transmisio* hitzaz gain, honako hauek erabili dira hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen gertakariari izendatzeko: euskararen *jarraipena* (Eusko Jaurlaritz, 1995; Arruti, 1997), hizkuntza komunitatearen *ugalketa* (Erize, 1997) eta euskara *ondorengoetaratzea* (Eusko Jaurlaritz, 1999). Nire ikerketan ordea (Kasares, 2012a, 2014b), arestian erran bezala, erreferentzia teoriko-metodologiko nagusia *language socialization* kontzeptuaren gainean garatutako paradigmaren kausitu baitut, hizkuntza *sozializazio adigaia* hobetsi dut.

1.4 Ikerbideak eta kontzeptuak berrikusten

Euskararen jarraipena jorratu duten ikerlanen azterketa kritikoak euskal soziolinguistikaren ikusmolde ohikoaren zenbait ezaugarri arazotsu azaleratu ditu (Kasares, 2014b), nire irudian, egun aztergai honi heltzeko saihestu behar direnak:

- a. Ikerketak *transmisio* kontzeptuan —bai eta euskararen *jarraipen*, *ondorengoetaratze* eta hizkuntza komunitatearen *ugalketa* edo *erreprodukzio* adigaietan ere— oinarritu ohi dira eta gurasoengandik seme-alabengana (eta oro har, helduengandik haurrengana) goitik beheiti heldu den hizkuntza ematea izan dute ardatz. Gure inguru akademikoan tradizioa duten kontzeptu horiek *ikusker*a bat dakarte eta aldiz, haurrak hiztun bilakatzeko bidean funtsezkoak diren zenbait alderdi ikusezin utzi dituzte. Bertzalde, horri loturik, ikerlanek hiztunen *ama hizkuntzari* eta lehen mintzaira ikasteko garaiari, umezaroari, baizik ez ohi diote begiratu, hiztunen bizi bilakaerei hainbertze erreparatu gabe. Ama hizkuntza, metafora biologizista eta esentziazalea, konstruktua ideologikotzat hartzen dut hizkuntzaren eta hiztunaren artean harreman zehatzak (naturalak) aurreikusi eta lehenesten baititu. Hizkuntza ordezkatze eta berreskuratze prozesuetan partikularki, ama hizkuntza adigaiak hiztunak mintzairarekin dituen harreman eta bilakaerez deus gutxi erraten du. Izan ere, ama edo lehen hizkuntza izateak ez dakar *per se* mintzaira hori hiztunaren bizitzan nagusia izatea, ez ohikoena edo usuena, ez eta maiteena edo nahiena ere edo hiztunak seme-alabekin solasteko hautatuko

Hizkuntza ordezkatze eta berreskuratze prozesuetan partikularki, ama hizkuntza adigaiak hiztunak mintzairarekin dituen harreman eta bilakaerez deus gutxi erraten du. Izan ere, ama edo lehen hizkuntza izateak ez dakar *per se* mintzaira hori hiztunaren bizitzan nagusia izatea, ez ohikoena edo usuena, ez eta maiteena edo nahiena ere edo hiztunak seme-alabekin solasteko hautatuko lukeena izatea.

lukeena izatea. Ama hizkuntza ez da kontzeptu zehatza, ez eta eragingarria ere hiztunen bilakabidea aztertzeko. Hortaz, nire idurikotz, gaurgoiti ezin dugu euskararen belaunez belauneko jarraipenaren xedea ama hizkuntza kontzeptu estatikoaren bidez adierazi. Izan ere, errealitateak eta ikerketek darakutsatenez, umeak zein hizkuntzatan hazi erabakitzeke orduan hiztunaren ama hizkuntza baino eraginkorragoak dira hiztun horrek hizkuntzarekin garatu dituen harremanak eta eratu dituen loturak.

- b. Ikerketek hizkuntzaren bi transmisio mota (lehenik gertatzen dena, naturala, informala, familia bidezkoa; eta bigarrenik heldu dena, kulturala, formala, eskolak bideratua) bereizi dituzte eta bereiz aztertu ere, bi transmisibideen arteko elkarreraginetan barrendu gabe. Nire ikerketak iradoki duenez, etxeko, eskolako nahiz plazako elkarrekintzak, hau da, familiako belaunaldien arteko harremanak nahiz haur belaunkideen artekoak —*harreman eszentrikoak* deitu ditudanak, erran nahi baita, anaia-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunuen eta halako adinkideen artekoak— ez dira hizkuntza jarduera bereziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira, batera jokatzen dute eta elkarreraginean daude. Egun urtebete ere ez duten hainbat ume haur eskoletan hasten dira eta etxeko hizkuntza erdara duena hor hasten da euskaraz jabetzen. Halakoetan, haurrak euskaldun haztean zer den naturala eta zer kulturala, zer den informala eta zer formala bereiztea ez da ebazpen erraza.
- c. Azterlanek ikergunea etxera edo familiara mugatu dute eta erabilera eremu hori bertzeetatik (inguruneko edo eskolako harremanetatik, kasu) isolaturik arakatu. Aitzitik, haurrak hiztun bilakatzeko prozesua orohartzaile edo holistikoa da, eragile askotarikoa. Familiari soilik begiratzeak ez digu haurrak hiztun bilakatzeko gako sorta osoa ematen. Gurasoek hizkuntza transmititzeko edo ez transmititzeko arrazoi nahiz aukera guztiak ez daude familiaren barnean. Familiatik atera eta hurbileko erkidegoari, gizarte sareei eta hizkuntzaren egoerari ohartzea ezinbertzekoa da. Dena dela, familiara mugatu behar ez dugula errateak ez du familiaren egitekoaren garrantzia gutxitzen, gurasoen hizkuntza balioak eta portaerak funtsezkoak baitira. Haurren euskarazko sozializazioa oro har, ohartuki egindako eta, anitz aldiz, planifikatutako ekintza sozializatzailearen jomuga da, inola ere ez prozesu oharkabea. Familian euskaldun hazten diren haurren gibelean gurasoen hizkuntza atxikimendu eta balioak

egon ohi dira, jarrerak eta jokamoldeak, isilean adostutakoak nahiz ohartuki deliberatutakoak, umeen hazieraren gainean egindako hau-tuak eta hartutako erabakiak. Umeak euskaldun hazi nahi dituzten aita-amek haurrak euskaraz ari daitezen ekintza sozializatzailerari-berriazkoa egiten dute eta horretarako, familia harremanetan hizkuntza portaera finkoak ezarri ohi dituzte (Kasares, 2012ab, 2014b).

- d. Ikerketek datu makro-kuantitatiboak ez ohi dituzte hurbilpen mikro-kualitatiboz eskuratutako informazioarekin osatu. Hau da, euskararen gizaldiz gizaldiko transmisioaren gaineko ikerlanetan aztermolde kuantitatiboa eta kualitatiboa bereizirik joan izan dira, ez uztarturik. Gurean inkestetako eta zentsu-erroldeko datu estatistikoan aldean azterketa kualitatiboa urriagoa izan da baina, alde handiz, sakonena, bide etnografikoaren bidez egindakoa batik bat. Euskararen erabilera maila desberdinetan jokatzeko duten faktore multzoren el-karreragina aintzat hartzen duten ereduak egokiagoak dira eta nik Nafarroako euskararen belaunik belauneko jarraipena ikertzeko (Kasares, 2014b) antzeko eredu zinetiko-dinamikoa proposatu dut:

- Hizkuntza gizartean (maila makrosoziolinguistikoa)
- Hizkuntza harreman sareetan (maila mikrosoziolinguistikoa)
- Hizkuntza hiztunaren baitan (maila idiolinguistikoa)

Berebat, gure historia soziolinguistikoa egitean hiru mailetako era-gingarrien arteko harremanek egun duela lau hamarkada baino anitzez konplexuagoak dirudite.

- e. Ikerketek gurasoen euskara ezagutza irizpide nagusitzat (eta maiz bakartzat) jo dute eta azterketa guraso euskaldun bat bederen duten familietara mugatu. Transmisioaren ikuspegian gurasoen gaitasuna ezinbertzekoa da baina umeak euskaldun haztea ez da aita-amen hizkuntza-gaitasun kontua soilik. Euskararen historia hurbilean arakatzeko hiztunen gogo-nahiak ezagutza hutsak baino gehiago egin dutela iradokitzen du. Bertzalde, ikerketek gurasoen hizkuntza gaitasuna ezaugarri estatikotzat hartu ohi dute eta umeekiko harremanek gurasoei sortzen dizkieten hizkuntza bizipen berriez ez dira ohartu. Guraso euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboari faktore aipagarria deritzot baina, euskaraz eroso aritzeak alde aurreko baldintza baino gehiago mintzaira eguneroko bizitzan erabiltzearen ondorioa dirudi. Izan ere, hiztunek hizkuntzarekin duten harremana — gaitasuna bera barne— prozesua da, ez aitzinetik dagoen baldintza, eta seme-alaben hizkuntza sozializazioan jokatzeko duen aldagai di-

**Aitzitik,
transmisioaren
ikuspegitik
haurren
egintzailetasuna
ikerketetarako
gutziz ikusezin
gertatu da.
Haurrak
anitzetan euskara
biziberritzeko
egitasmu eta esku
hartzeko
proiektuen
objektuak izan
dira, baina ez
ikerketaren
objektu(-subjektu)
aztergai. Horrek
euskararen
jarraipenean
umeak helduek
transmititutako
hizkuntzaren eta
ideologiaren
hartzaile
pasibotzat hartu
direla salatzen
du, haurrak
euskararen
belaunez
belauneko
segidan
hizkuntzaren
jasotzaile hutsak
baino gehiago
eragile eta
eraldatzaileak
direla ohartu
gabe.**

namikotzat hartu beharrekoa. Hainbat kasutan lehen umea izateak edo izateko aukera hutsak bizikideen arteko hizkuntza ohituretan eragina izan du. Guraso bihurtzeak hainbat gurasori hizkuntza jorkaeretan jakinaren gaineko aldaketa ekarri die. Alde horretatik, familia berria osatzeak nolabaiteko *katalizatzailetako* jokatzan du, aita-amak umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean jarrerak hartzeko eta hautuak egiteko kinkan paratzen baititu.

- f. Ikerketek aita-amen (eta orokorki helduen) mintzaira portaerak baizik ez dituzte aintzat hartu, haurren egintzailetasuna (agentzia) eta haurren arteko eraginak azterketatik kanpo utzirik. Baina haurren hizkuntza jokaeraren faktoreen artean adinkideen eragina ukalezina da; hau da, haurrek beren mintzajardunean elkarri eragiten diote. Hizkuntza transmisioaren gaineko ikerketek ez ohi dituzte belaunkideen arteko eragin horiek behar bezala balioetsi, soziolinguistikan kontu jakina bada ere ingurune eleaniztunetako haurrek gurasoen mintzamoldera baino gehiago beren adinkideen mintzaerara egokitze joera izaten dutela (Chambers, 2003: 175-185; Barron-Hauwaert, 2004: 57-59); alegia, haurrek hizkuntza bertze haurrengandik ere ikasten dutela (Harding & Riley, 1998: 165). Hizkuntza sozializazioa teorikoki tankeratu duten egileek ordea, prozesuaren izaera elkarreragilea (Ochs & Schieffelin, 1992; Schieffelin & Ochs, 1986; Friedman, 2012; bertzeak bertze), eta haren *multiagency* eta *multidirectionality* ere (He, 2012) nabarmendu dute. Hala bada, mintzairaren belaunez belauneko jarraipenak elkarrekintza du oinarri eta haurren hizkuntza sozializazioa prozesu elkarreragilea eta noranzko askotarikoa da, belaunaldien arteko harremanetan (goitik beheiti nahiz behetik goiti) eta belaunaldi berekoen arteko harreman eszentrikoetan (ezker-eskuin) mamitzen dena. Aitzitik, transmisioaren ikuspegitik haurren egintzailetasuna ikerketetarako gutziz ikusezin gertatu da. Haurrak anitzetan euskara biziberritzeko egitasmu eta esku hartzeko proiektuen objektuak izan dira, baina ez ikerketaren objektu(-subjektu) aztergai. Horrek euskararen jarraipenean umeak helduek transmititutako hizkuntzaren eta ideologiaren hartzaile pasibotzat hartu direla salatzen du, haurrak euskararen belaunez belauneko segidan hizkuntzaren jasotzaile hutsak baino gehiago eragile eta eraldatzaileak direla ohartu gabe.

Landa ikerlanetan (Kasares, 2014b) aski argi azaldu da gure historia soziolinguistikoan euskararen belaunez belauneko jarraipen-etenean gurasoak ez ezik haurrak ere eragileak izan direla. Hau da, haurrak

eragile aktiboak izan dira hala euskara galtzeko nola berreskuratzeko prozesuetan. Euskara ordezkatzeko bilakaeran, konparazione, zenbait familia euskaldunetan erdararako hizkuntza aldaketa haurrek eragin zuten behetik goiti. Hau da, etxeko hizkuntza aldarazi dutenak ez dira beti gurasoak izan. Haurrek hizkuntzaren gizarte egoerarekin bereziki eraginberak dirudite eta, antza denez, mintzaira batek familiaratik at, ingurunekeo gizarte harremanetan, zenbat eta indar handiagoa izan, orduan eta eragingarritasun handiagoz jokatzan dute haurrek hizkuntza nagusia etxera eraman eta familiararen barneko elkarrekintzetan sartzeko.

Hala bada, nire irudituan, haurrak euskararen gizarte bilakaeren eragiletzat hartu beharrekoak dira. Izan ere, haurrak ez dira balizko hizkuntza transmisio batean helduengandik letozkiekeen hizkuntza eraginen jasotzaile pasiboak, helduen erabaki-hautuen eta irakaspenen hartzaile hutsak. Haurrek mintzaira *jaso* ez ezik *beretu* ere egiten dute, hartaz jabetzean.

Euskararen iraupenaren elkarreragiletasunak haurren harreman eszentrikoetara, familia gunetik kanpo belaunkideekin dituzten horietara begiratzea eskatzen du. Hiztun bilakatzeko bidean adinkideen arteko elkarrekintzek erabakigarriak dirudite. Hori horrela, familia hutsak haurren hizkuntza sozializazioan luzera duen eragina mugatua delakoan nago. Haurtzarotik goiti batik bat neska-mutilen hizkuntza portaeretan harreman eszentrikoak uste baino erabakigarriagoak dira.

1.5 Euskararen belaunik belauneko segidaren erronka epistemologikoa

Historia hurbileko euskararen jarraipenari eta horren barnean egun belaunaldi berriak euskaldun hazteko bilakabideari heldu nahi dion ikerketa batek honako alderdi hauek kontuan hartu behar ditu ezinbestez:

- a. *Euskararen jarraipena eta etena nola bildu*. Euskararen historia hurbilari gaingiroki so eginda hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko iraupena etenik gabeko prozesutzat ezin dela azaldu gauza ageria da. Euskara atxiki, galdu eta berreskuratze prozesuak agitu dira, hausturak nahiz estekadurak, eta mintzairaren jarraipenaren dinamikotasun eta areago aldakortasun horri antzemateko moduko ikusmolde teorikoa behar da. *Erreproduktzio* (edo *ugalketa*, Erize, 1997) eta oro har, *habitus* (Bourdieu, 1989) kontzeptuetan oinarritutako azalpen sasi-mekanikoek, edo bederen gizarte egituren eta jokaeren ereduen ja-

rraipena lehenesten dutenek, gure iragan hurbileko euskararen bilakaera aldaberari nekez erantzun diezaiokete¹. Nire ikerketaren (Kasares, 2014b) argitan, Nafarroan euskarak ez dirau guraso euskaldunek beti ume euskaldunak hazi dituztelakoz eta ezezko horrek egungo egoeratik zenbat eta hurrago, hainbat eta biribilago dirudi. Beraz, prozesu beraren aurki-binperrak baitira, euskararen belaunez belauneko jarraipenean etena eta berreskurapena batera aztertzea ahalbidetzen duen kontzeptu eta teoria eredu behar da.

- b. *Euskararen gizarte berreskuratzearen prozesuari nola heldu.* Hondar lau hamarkadetan Euskal Herriko hainbat ingurunetan euskara indarberritu dela begien bistakoa da eta horrek hizkuntzaren gizarte egoera erabat birmoldatu du. Horren karietara, euskararen gizarte egoera azaltzeko orain artio erabili diren antinomia moduko kategorizazio dikotomikoak (hemengoa/hangoa, herria/hiria, *baxerri-tarra/moderno*a, barnekoa/kanpokoak, gizonezkoa/emakumezkoa, etxea/eskola... Sánchez Carrión, 1972, 1981) desegoki dakuskit. Nire idurikotz, planteamendu dikotomiko horiek nekez izan daitezke euskararen egungo gizarte dinamiken azalbide baliagarria. Era berean, *transmisio* kontzeptuak bere baitan duen ideia goitik beheitikoa eta noranzko bakarrekoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuinguru guztiak biltzeko egokia. Izan ere, inguru erdaldun(du)etako haur euskaldun anitzek euskara ongi edo batere ez dakiten gurasoak dituzte. Orobat, transmisio adigaiak (bereizi diren bi transmissiobideek, *naturalak* zein *kulturalak*) euskararen belaunez belauneko jarraipen prozesuan haurrak helduengandik heldu zaizkien hizkuntza eraginen jasotzaile hutstzat ikustera garamatza, prozesu horretan jokatzeko duten rolaz ohartu gabe.
- c. *Hiztunen heterogeneotasuna nola jaso.* Hiztunak eta, ondorioz, familiak ez dira hizkuntza aldetik beti-batekoak eta homogeenak. Euskalduna/erdalduna dikotomia zurrinak (Erize, 1997) pertsonen bizi ibilbidean mintzairekin eratzen dituzten harreman askotarikoak eta izan ditzaketen hizkuntza sozializazio berriak azaltzeko eraginkortasuna galdu bide du. Euskal hiztunen gaitasuna *continuum*a da eta euskararekin izandako bizipenek umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean hartzen dituzten jarrera eta jokaerak uki ditzakete. Euskararen transmisioaren ikusmolde ohikoak batik bat gurasoen hizkuntza gaitasunari erreparatu dio eta egun haurrak euskaldun hazten ari diren familia anitz bere azterguretik kanpo utzi ditu.

Izan ere, euskararen transmisioa sarri euskara ama edo lehen hizkuntzatat ondorengoenganatzearekin berdinkatu da. Duela hiruzpalau hamarkada ez bezala, haurrak euskaldun bilakatzen diren inguruneen aniztasunak *hizkuntzan guztiz ardazturik ez dagoen hizkuntza komunitate* kontzeptura eraman behar gaitu eta, ondorioz, egun euskararen belaunez belauneko jarraipena arakatzeko gizarte unitate malguagoa proposatzera, hots, *familia euskaldun* kontzeptua zabaltzera. Hala bada, nik (Kasares, 2014b) adigai malgua baliatut, honela definiturik: *familia euskaldunak* umeen euskarazko sozializazioan nolabait inplikitzen direnak dira, hau da, umeak euskaldun hazten dituen edota bere jarduera sozializatzailean euskara kontuan hartzen duen familia oro. Hizkuntza gaitasuna baino gehiago mintzairaren jarraipenaren aldeko jarduerak eta atxikimenduak daude familia euskaldun kontzeptuaren oinarrian. Sendi horiek euskararekin oso harreman desberdinak izan ditzakete baina batzen dituen alderdia umeen hizkuntza sozializazioarekiko jarrerak dira. Adiera horretan azken hiru belaunaldiak euskaldunak dituzten familiak sartzen dira (*familia euskaldunbeteak*), bai eta hizkuntza aldetik bitariko bikoteek osatuak (*familia euskaldun ez-osoak*) edota haurrak ez bertzte guztiak erdaldunak dituzten familiak ere (*familia euskaldunberrituak*). Umeak ttikitatik euskararekin harremanetan jartzea, euskaraz eskolatzea, euskaldun haztea, euskaraz bizitzea... asmo desberdinak dituzten gurasoen familiak besarkatzen ditu nire ikerketan darabildan *familia euskaldun* adigaiak.

Hizkuntza gaitasuna baino gehiago mintzairaren jarraipenaren aldeko jarduerak eta atxikimenduak daude familia euskaldun kontzeptuaren oinarrian. Sendi horiek euskararekin oso harreman desberdinak izan ditzakete baina batzen dituen alderdia umeen hizkuntza sozializazioarekiko jarrerak dira.

2. XEDEA ZEHAZTU ETA ERAGINBIDEAK ARAKATU HAURRAK EUSKALDUN HAZTEKO BIDEAN

I

2.1 Haurrak euskaldun haztea helburu

Euskararen transmisioaren egoera eta helburuak orain artio ama hizkuntza edo lehen hizkuntza kontzeptuaren bidez formulatu dira ikerlan makro-soziolinguistikoetan batik bat. Auzo hizkuntzen azterlanetan ere transmisioaren paradigmaman funtsaturiko ikermoldea nagusi da. Horren erakusgarri, har dezagun Brauli Montoya eta Antoni Mas soziolinguisten *La transmissió familiar del valencià* liburua. Bi irakasleek valentzieraren *revernacularització* prozesua miatu dute. Gurasoen lehen hizkuntza eta bikotekideek beren artean egiten duten mintzaira aintzat harturik, Montoyak eta Masek umei valentziera irakasten dieten familien bederatzi tipologia bereizi dituzte. Funtsean, valentzieraren transmisioaren etena itzularazteko proposatzen duten eskemak ama

Euskararen geroratzean inplikaturik gaudenok hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenean dugun helburua ezin dugu transmisio kontzeptuan ez eta euskara ama hizkuntzatako transmititzean ere paratu. Helburua birformulatu beharko genuke eta, nire idurikotz, euskarari gizaldiz gizaldi irauarazteko estrategien xedea honek beharko luke: haurrek beren belaunkideekin komunikazio egoera ez instituzionalizatu etan euskaraz aritzea.

hizkuntza du ardatz eta helburu. Xedea valentziera ama hizkuntza transmititzea baita, gurasoen hizkuntza gaitasuna alde aurreko eta ezinbertzeko baldintzatako dute eta proposatutako ereduan beti gurasoetako batek bederen jakin behar du mintzaira. Katalanaren belaunez belauneko jarraipenaren gaineko ikerlanak transmisio adigaiak dakarren ikusmoldean kokatu ohi dira eta hizkuntza berreskuratzea edo indarberritzea *famílies revernacularitzadores* (Montoya & Mas, 2011) deiturikoen katalana ama hizkuntzatako transmititzean oinarritu dute. Hizkuntza galera prozesuaren itzulgarritasuna gauzatzeak zenbait familiatan gurasoek eta seme-alabek lehen hizkuntza bera ez izatea dakar; hau da, katalana lehen hizkuntza ez zuten aita-amek mintzaira hori transmititu eta umeen ama hizkuntza bihurtzea. Halako sendiei *famílies mutants* deitu diete zenbait egilek (Subirats et al., 1991; Vila, 1993; De Rosselló, Galindo & Vila, 2002).

Katalana mintzatzen den herrialdeetan guraso bat bederen katalan hitzuna duten familiak gehiengo izaten dira. Hala bada, haien egoera demolinguistikoan transmisioaren eta ama hizkuntzaren ikusmoldea baliagarria zaie haien sendi gehien-gehienak biltzen baititu.

Baina gurean euskararen transmisio etena itzularazteko eta hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko jarraipena bermatzeko ama hizkuntzaren transmisioan oinarritzen den *revernacularització* ereduarekin noraino joan gintezke? Hastekoz, gure egoeran, gurasoetako bat bederen euskalduna izatea ez baitute betetzen, familia gehienak eredu horretatik kanpo leudeke. Ditugun hondar datuen arabera (Eusko Jaurlaritza, 2013), 25 eta 34 urte bitartekoei (gurasogaiei) oharturik, EAEn % 44,5 baizik ez dira elebidunak, Nafarroan % 14,5 eta Iparraldean % 13,9. Portzentaje horietatik sortu dira edo sortuko dira hemendik gutxira guraso izanen diren bikoteak. Beraz, transmisio eta ama hizkuntza kontzeptuak hertsiki aplikaturik familia anitzendako ez dugu eredu egokirik izanen eta planteamendu hori euskararen belaunez belauneko segida ziurtatzeko guztiz eskasa zaigulakoan nago.

Hori horrela, euskararen geroratzean inplikaturik gaudenok hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenean dugun helburua ezin dugu transmisio kontzeptuan ez eta euskara ama hizkuntzatako transmititzean ere paratu. Helburua birformulatu beharko genuke eta, nire idurikotz, euskarari gizaldiz gizaldi irauarazteko estrategien xedea honek beharko luke: haurrek beren belaunkideekin komunikazio egoera ez-instituzionalizatu² euskaraz aritzea. Komunikazio egoera ez-instituzionalizatutzat harreman hizkuntza alde aurretik ezarririk ez duten horiek

hartzten ditugu: haurren arteko jolasak, konparazione. Horietan hiztunek beraiek hautatzen dute mintzaira. Bertze hainbat egoeratan (ikasgelan, eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan...) neska-mutikoei hizkuntza erabilera ezartzen zaie.

Hala bada, nik euskararen jarraipenerako proposatu dudan xedea ez da gurasoek haurrei euskaraz egitea, ez eta hurrek euskara ikastea, edo aita-amek eta umeez elkarrekin euskaraz ihardukitzea. Xedea haurren arteko hizkuntza erabilera askean kokatu dut. Hau da, haur banakoek beren artean egiten duten hizkuntza, mintzaira berezkoa eta bat-batekoa, euskara izatea. Hori paratu nahi dut deus baino lehen gure hurrengo hamarraldietarako egitasmo soziolinguistikoen jomugan. Hori eginik datozen belaunaldietarako helburua hurrek —euskara lehen hizkuntza izan ala ez— euskaraz hazteko ahal den baldintzarik onenak izan ditzatela irudikatuko dugu.

Euskara bezalako hizkuntza gutxituei zail zaie haur-gazte jendeak familian usu egiten ez duen mintzaira, eskolan landua bada ere, ikastetxetik at erabil dezan erdieste. Ikerketek haur eta gaztetxoek erabilera berezkoa lortu ezina eta horretarako dauden zailtasun handiak erruz aztertu dituzte. Bakar batzuk baizik ez aipatzearen, Europan eskozieraren kasua (MacKinnon, 1991; MacKinnon & MacDonald, 1980), gaelerarena (Ó Laoire, 1996; Ó Riágain, 2001) eta katalanarena (Alacanten Montoya, 1996; Bartzelon Galindo & Vila, 2009); Ozeanian maorierarena (Benton & Benton, 2001) eta Amerikan navajo hizkuntzarena (Lee & McLaughlin, 2001). Beraz, neska-mutikoez elkarren artean bat-batean eta berez mintzaira ahulean egitea da hizkuntza indarberitzeko ahaleginetan lortzea zailenetakoa den emaitza, baina erdiesten delarik zinez esanahitsua. Indarberritu (edo biziberritu) nahi den hizkuntza belaunaldi gazteen erabileran errotzea bezain seinale onik ez dago soziolinguistendako, Ken Georgek ohartarazi bezala: “When children start to play in the threatened language a significant goal has been reached in the revitalization” (Wright, 1996: 73). XIX. mende bukaerako eta XX. mendearen hasierako hamarkadetan hebreeraren kasu arrakastatsuan horixe izan zen gertatutako *great leap* (Nahir, 1988), jauzi handia, hizkuntza biziberritzearen aldera: hurrek eskoletan ikasitako mintzaira ikasgelatik lekora eraman zuten eta karrikan eta etxeetan hasi ziren erabiltzen. Aitzitik, hori gertatzea eta orokortzea lortzen ez delarik hizkuntzaren indarberitze ahaleginek ez dute beren xedea erdiesten: “The most frequent reason given for decline of the ML [Minority Language] is its absence among the young” (Williamson, 1991: 111).

Gure kasuan adibidez, euskararen aldeko lau hamarkadako hizkuntza plangintzak datu aipagarriak eman ditu, erraterako, Gasteizen: Haur Hezkuntzako ikasleen % 44 eta Lehen Hezkuntzako % 24 D ereduan eskolatuta daude, gasteiztarren % 5,5ek etxean euskaraz egiten du, helduen eta haurren arteko harremanen % 8,9 euskaraz da. Halere, haurren arteko euskararen erabilera % 0,8 baizik ez dugu (Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua, 2010). Ikusi bezala, gurasoen eta seme-alaben arteko elkarreraginek eta etxekoen arteko hizkuntza erabilerak ez ohi dute haurren arteko erabilera tasarekin harreman zuzenik. Haurren arteko hizkuntza erabileran arakatu beharko lukete bereziki euskararen belaunez belauneko jarraipenaren gaineko azterketek gertakari hori funtsekoa baita.

Euskal gaztetxoek hizkuntza erabilerari eragiten dioten elementuen gaineko ikerketek (Soziolinguistika Klusterra et al., 2009; Eusko Jaurlaritzaren et al., 2013) haurtzaroko hizkuntza bizipenak, hala etxekoak nola etxer landakoak, geroko hizkuntza portaerarako harroin garrantzitsua direla iradoki dute.

2.2 Paradigma berrirako oinarriak

Euskararen belaunez belauneko jarraipenaren aldeko lanean xedea mintzaira belaunaldi berrien harreman eszentrikoetan errotzean paratu behar dugula diodalarik, hizkuntza transmisioa jorratu den ohiko moldetik aldentzen ari naiz.

Transmisio adigaiaren gainean eraturako ereduaren eraginguneak etxea eta eskola izan dira. Etxean hizkuntzaren transmisio naturala, informala gauzatu da, ama hizkuntzatarako; eta eskolan hizkuntzaren transmisio kulturala, formala bideratu da (euskara etxekoa duten eta ez duten haurren arteko). Horri loturik, hizkuntza transmisioaren eragiletzat gurasoak eta irakasleak —betiere euskaldunak, noski— baizik ez dira jo eta eragina goitik beheitikoa (noranzko bakarrekoa, helduengandik haurrengana beti) baizik ez da aintzat hartu. Artikulu honen 1. atalean azaldutakoak aldiz, I. taulan adierazten den eredu honen askieza erakutsi du.

I. taula

Hizkuntza transmisioa: kontzeptua, eraginguneak eta eragileak

Kontzeptua	Eraginguneak	Eragileak
Transmisioa	Etxea Eskola	Gurasoak Irakasleak
	Noranzko bakarra (goitik behera [↓])	

Egun haurrak euskaldun haztea eta beren adinkideekin komunikazio egoera ez-instituzionalan euskaraz aritzea xede dugula, hizkuntza transmisioaren molde tradizionalak balio ez digulakoan nago eta horren ordez, II. taulan biltzen den eredu hau proposatuko nuke:

II. taula

Hizkuntza sozializazioa: kontzeptua, eraginguneak eta eragileak

Kontzeptua	Eraginguneak	Eragileak
Sozializazioa	Gizartea (orohartzailea)	Eragileaniztuna Elkarreragilea (goitik behera nahiz behetik goiti [↓] eta ezker-eskuin [↔])

Kontzeptuari dagokionez, hizkuntza *transmisio*ak oro har, haurrak hiztun bilakatzeko prozesuan eraginkorrak diren zenbait alderdi (adibidez, euskaraz ez dakiten gurasoen jarrerak eta motibazioa, haurrek adinkideekin dituzten harremanak, eskolaz kanpoko arloa...) ikusezin uzten ditu. Hizkuntza *sozializazio*aren adigaiak aldiz, haurrak euskal hiztun bilakatzeko prozesuaren bertze ikuspegi teoriko-metodologikoa ematen digu, nire irudituan euskararen gizarte berreskuratzeko prozesuan aurre egin behar diegun gertakariak ulertzeko eta horietan eskuhartzeko anitzez egokiagoa dena.

Eraginguneari doakienez, etxeaz eta eskolaz gain hizkuntza sozializazioak haurren bizitza ukitzen duten gizartearen arlo guztiak (etxeke aisialdia, eskolaz kanpoko jarduerak, hedabideak...) biltzen ditu. Belaunaldi berriak euskaraz jabetu eta euskaldun bilakatzeko prozesu *orohartzailea* edo *holistikoa* da, *familiara* mugatzen ez dena eta eskolan soilik nekez gauza daitekeena. Etxean eratzen diren hizkuntza elkarrekintzek eta hortik kanpo umeek dituzten bizipenek neska-mutikoen hizkuntza sozializazioan batera jokatzeko dute. Hau da, etxeke elkarrekintzak, eskolakoak eta plazakoak ez dira hizkuntza jarduerak guztiz bereiziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza gizarteratze prozesu zabalagoan txertatuta dauden, elkarreraginean dabiltzan eta elkar elikatzen duten jarduerak sozializatzaileak dira eta, ho-

Belaunaldi berriak euskaraz jabetu eta euskaldun bilakatzeko prozesu orohartzailea edo holistikoa da, familiara mugatzen ez dena eta eskolan soilik nekez gauza daitekeena. Etxean eratzen diren hizkuntza elkarrekintzek eta hortik kanpo umeek dituzten bizipenek neska-mutikoen hizkuntza sozializazioan batera jokatzeko dute.

rregatik, ezin dira zein bere aldetik hartu. Aztertu diren hizkuntza indarberritze prozesu arrakastatsu bakanetako batean, hebreeraren kasuan, soziolinguistek etxeko eta eskolako erabileren arteko harremana nabarmendu dute: behin eskoletan sartu eta sustatuz gero hasi zen hebreera etxeetan ere erabiltzen (Nahir, 1988; Cooper, 1989; Spolsky, 1996).

Gurean ere haurren euskarazko sozializazioa ukitzen duten eragingarriak askotarikoak dira, batera eta elkarreraginean jokatzeko dute eta baldintza soziohistorikoei loturik baitaude, haien artean hierarkia ezartzea zaila da. Sozializazioaren paradigmak eraginguneak zabaltzen ditu. Familiek haurra hiztun bilakatzeko guneak etxera eta eskolara mugatzen ez direla jakin behar dute. Hainbat hautu eta erabaki daude gurasoen eskura eta aita-amak horren jakitun eta horrekiko sentibera izatea behar-beharrezkoa da.

Familien eraginari oharturik, sozializazioaren paradigmak gurasoek egiteko eta rol berriak hartzea ahalbidetzen du. Euskararen transmisioaren ereduaren norbaitek transmititzen du eta bertze batek transmititukoa jasotzen du. Beraz, euskaraz ez dakiten gurasoei eredu horretan ez zaie lekuri ematen. Hizkuntza sozializazioaren paradigman aldiz, xedea ez da euskara seme-alaben ama hizkuntza izatea, haurrak txikitatik euskaraz jabetzea eta beren belaunkideekin harremanetan euskaldun haztea baizik. Familia guztiak inplikatzeko ahal dira xede horretan, zein bere egoeratik. Bi gurasoak euskaldunak dituzten familiek, bitarikoak dituztenek edo euskara ez dakiten gurasoek osaturik, guztiek, ikus dezakete beren esku zerbait dagoela helburu hori erdiesteko. Hizkuntza sozializazioan gurasoen hizkuntza gaitasuna ez da aitzineko eta ezinbesteko baldintza. Euskararen transmisioaren arloan gurasoen hizkuntza gaitasunari ematen zaion erabateko garrantzia erlatibizatu behar dugula uste dut. Nire ikerketan ikusi dudanez, seme-alabak euskaldun haztean gehien kezkatu diren gurasoak ez dira beti euskara gaitasunik onenekoak izan (ez hasieran bederen, umeekin euskaraz egiteak gaitasuna handitzen lagundu baitie). Batzuetan gaitasun nahikoa baizik ez zuten eta bertze elementu batzuek (jarrerak, motibazioak, eratu zuten hizkuntza identitateak...) jokatu zuten. Spolsky (1996: 34) hebreeraren indarberritzeaz diharduelarik halako susmoa azaldu du. Anitzetan jakintzat eman da mintzairaren biziberritzea erabaki zuten gurasoek hebreera oso ongi zekitelako baina berak zalantza paratzen du: benetan hala zen?

Eragileei dagokienez, transmisioaren paradigman gurasoak eta irakasleak bakarrik hartzen dira eragiletzat, haurra hiztun bilakatzeko prozesuan adinkideen eraginik ez balego bezala. Hizkuntzaren jasotzearen adiera

hori arras estua zaigu. Bertzalde, aipatu bezala, transmisioaren paradigmari haurrak subjektu pasiboak izan dira, ez dute hizkuntzaren jarraipenean rol aktiborik jokatu. Ikerketak aldiz, bertze gauza bat utzi du agerian, gure historia soziolinguistikoan euskararen jarraipenean haurrak eragile aktiboak izan dira jasotzaile hutsak baino gehiago. Euskararen historia hurrekoan neska-mutikoen rol eraginkorra jokatu dute eta hortaz, haurren egintzailetasuna aintzat hartu beharrekoa dugu.

Beraz, hizkuntza sozializazio prozesua *eragileaniztuna* eta *elkarreragilea* da, belaunaldien arteko (goitik beheko nahiz beheko goitiko) elkarrekin ez ezik adinkideen arteko (ezker-eskuineko) *harreman eszentrikoetan* ere gauzatzen dena.

Buruenik, pentsatzen badugu gako bakarra dela haurrek hizkuntza gurasoengandik nola jasotzen duten, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena erreproduzio hutstzat joko dugu. Haurrak ez dira hizkuntza transmisio balizko egoera batean helduengandik datozkien hizkuntza eraginen jasotzaile pasiboak, helduen erabaki-hautuen eta irakaspenen hartzaile hutsak. Haurrak ez dira hizkuntza den kultura ondasun horren jaraunse edo oinordekoak, hizkuntzaren historiaren *eratzailak* baizik. Haurrek hizkuntza jasota ere bere egin beharko dute, bizialdian hautatu eta horrek gurasoen nahitik haratago doa, horrek hizkuntzak gizartean dituen aukerekin du zerikusi zuzena.

2.3 Eragozpen teorikoa eta arazo praktikoak

Ikertzaile batzuek plangintza ofizialek hiztunen arteko hizkuntza erabilera berezkoa eragin dakiokenentz zalantzak agertu dituzte. Erraterako, Joan Pujolar (1997) soziolinguistak norbanakoen arteko mintzairari hizkuntza plangintza ofizial-instituzionalek eragin ahal izateari zailsko irizten dio. Gizabanakoen arteko aurrez aurreko hizkuntza erabilera berezkoa, egunerokoa, erabat informala —eta izaera heteroglosikoa— den horri nolatan eraginen dio hizkuntza plangintza instituzional batek —hizkuntza forma estandar legitimatu eta hegemonikoa ezartzen duen batek—? Pujolarrek hizkuntza plangintza instituzionalaren ordezkariak —berak Kataluniako Generalitateko hizkuntza plangintza du buruan— bertzelako esku hartze batzuk, hiztunengandik hurbilagoak, anitzagoak, bertze ahots batzuk proposatzen dituztenak hobetsi ditu eragingarriagoak izan daitezkeelakoan. Ildo horretatik, hizkuntzak eta identitateak anitzak eta biziak direla abiapuntutzat hartzen duen *hizkuntza politika postmoderno* baten alde egiten du.

Bistan da erakunde publikoetatik, Hezkuntza sistematik... ezartzen diren komunikazio instituzionalizatuak (hizkuntza dakarten horiek, ikasgeletako komunikazioak, kasu) ez ohi direla beren hutsean haurren arteko komunikazio indibidualizatuak euskarara erakartzeko aski izan. Baina, inola ere ezin dugu espero komunikazio instituzionalizatuak haurrek elkarrekin egiten duten mintzairaren eraginik izatea?

Hori dugu aztertu beharreko kontu bat: nola, zer programa, kanpaina eta mezuren bidez nahi diogun haurren arteko hizkuntza erabilera berzkoari eragin.

Bistan da erakunde publikoetatik, Hezkuntza sistematik... ezartzen diren komunikazio instituzionalizatuak (hizkuntza dakarten horiek, ikasgeletako komunikazioak, kasu) ez ohi direla beren hutsean haurren arteko komunikazio indibidualizatuak euskarara erakartzeko aski izan. Baina, inola ere ezin dugu espero komunikazio instituzionalizatuek haurrek elkarrekin egiten duten mintzairan eraginik izatea? Neska-mutikoen arteko erabilera euskarara erakartzeko batik bat komunikazio ez-instituzionalizatuen eremuak (eskolaz kanpoko jolasorduak, erraterako) baliatu beharko genituzke?

2.4 Euskara berretxekotzeko kasu arrakastatsu baten azterketaren argitan

Euskararen egora aztertu duten lanek ez ohi diete umeen hizkuntza sozializazio baldintzei bereziki erreparatu, ez eta hondar hamarkadetan gertatu diren euskararen berreskuratze eta indarberritze kasu arrakastatsuetan ere. Nik aldiz, neure ikeketetan (Kasares, 2014b) batik bat hori jot dut aztergaitzat euskara (berr)etxekotzeko prozesuan argi egiteko. Bi kasu aztertu ditut. Bat Nafarroako Mendialdean, Baztan udalerrian: Irurita herria. Bertzea, Nafarroaren erdialdean, Iruñerrian: Iruñea hiriburua.

Irurita euskararen galtze prozesuaren itzulgarritasunaren adibide dugu. Orain lau hamarkada euskararen belaunez belauneko jarraipena etenda zegoen eta herriguneko haur gehienak ez ziren euskara ikastera iristen. Egun ordea, neska-mutiko iruritarrek euskaraz egiten dute. Bi dira, nire ustez, horren gakoak: alde batetik, familia tipologia soziolinguistikoa, belaunaldien arteko hizkuntza lotura egitea ahalbidetu duena; eta bertzetik, egungo haurren euskarazko sozializazioaren izaera osoa edo integratua, neska-mutikoei euskararen bizipen usua eta jarraitua bermatzen diena.

Bertze kasu bat ere, Iruñekoa, aztertu da (Kasares, 2014b) eta hor euskara berretxekotzeko zailtasunak agerikoak dira. Inguruabar mikrosoziolinguistikoen artean bi alderdi zaizkie nabarmenki desberdinak Iruritako neska-mutikoei eta Iruñekoei: familiaren hizkuntza elkarbizitza eta eskolaz kanpoko euskararen bizipena. Lehenengo alderdia familiaren tipologia soziolinguistikoa loturik dago eta haurren mintzatzeko ahalmena lauzkatzen du. Bigarrenak, eskolatik kanpoko euskararen bizipenak neska-mutikoen harreman eszentrikoetan hizkuntza portaera finkatzen laguntzen du, edo

ez du laguntzen, Iruñeko kasuan bezala.

Ikerketak agertu duenez, neska-mutiko batzuek eta bertzeek euskararekin harreman desberdina izan dute familian eta ingurune hurbilean. Iruritako haurrek eskolaz kanpo euskararen bizipen jarraitua dute, gutxi-asko, familian, lagunartean eta aisialdian. Hizkuntzaren erabilera esparru horiek elkar indartzen dute, nahiz eta zenbait arlo edo jarduera erdaraz baizik ez izan. Neska-mutiko iruritarrak gaztelaniaren indarrak jabetzen dira baina euskara herriko harremanetarako baliagarria zaie eta eguneroko bizitza mintzaira horretan egiten dute.

Iruñeko haurrendako, aldiz, euskara bizipen etena izaten da, ez jarraitua: etxean euskaraz apurtxo bat, eskolan gehiena, karrikan deus ere ez, lagunekin oso gutxi... Haietariko anitzendako euskara ikasgelara mugatzen da eta gune hori *uharte* modukoa da erdarazko ohiko jardunean; haur horien hizkuntza sozializazioan euskara baino gehiago euskararik gabeko egunerokoa da nabarmena, euskararen hutsarteak alegia. Zenbait ikaslek *uharte* horretaz gain ez dute euskararekin bertze harreman gunerik izaten eta hizkuntzaren bizipen eten horrek hainbat komunikazio elkarrekintzatan eta egoeratan euskaraz aditu eta aritu ezinean uzten ditu.

Iruñean euskara etxekoa duten neska-mutikoen ere ikaskideekin aritzeko hizkuntza nagusira jotzen dute. Familian euskararekin harremana dutenak gehiengoaren diren ikastaldean ere ikasleek ez ohi dute beren arteko harremanetan euskaraz egiten. Gauzak horrela, haur-gaztetxo iruindarrak, bi-hiru urtez geroztik euskaraz eskolatutak, adinkideekin *euskaldunez osaturiko harreman sare erdaldunetan* sozializatzen ohi dira, hau da, haurride, ikaskide eta lagun euskaldunak dituzte, baina erdaraz aritzeko aztura hartua dute.

Iruritan aldiz, haurrek beren artean euskaraz egiten ohi dute. Emaizta horretan —guk xedetzat jotako alderdian hain justu— bereizten dira nabarmenen aztertutako bi kasuak.

2.5 Eraginbideen gaineko hausnarketa

Euskararen belaunez belauneko jarraipenerako xedea haurren arteko erabilera berezkoan paratu dugu eta hori jomuga harturik, hizkuntza sozializazioaren paradigmara lerratu gara. Horrek haurrak hiztun bilakatzeko prozesuaren gaineko bertze ikusmolde bat eman digu eta 2.2 ataltxoan azaldu dudanez, begirada berriak kontzeptua ez ezik eraginguneak eta eragileak ere ukitu ditu. Atalño honetan neska-mutikoen euskarazko sozializazioari eragiteko bideetan barrenduko naiz (Kasares, 2014a).

Hizkuntza sozializazioaren izaera orohartzaileak eraginguneak ugaltu dizkigu. Etxea eta eskola ez ezik haurren bizitza ukitzen duten bertzelako gizarte arloak ere neska-mutikoak euskaldun hazteari eragiteko guneak dira eta umeen euskarazko sozializazioan batera jokatzeko dutela jakinik, gure esku hartze soziolinguistikoan ezin ditugu bakoitza bere aldetik landu. Ekintza sozializatzailea eraginkorragoa da eragingune batetik baino gehiagotik (familiarik, eskolatik, elkarteetatik, hedabideetatik...) bideratzen bada. Bertzalde, sozializazioaren izaera eragileaniztun eta elkarreragileak haurren egintzaitasunaz ohartarazi digu. Hala bada, eraginbide hauek proposatuko nituzte:

— *Eraginguneen arteko jarraikortasuna, loturak, sinergiak... sustatu, etxeko, eskolako eta aisialdiko jarduera sozializatzaileek batera jokatzen baitute haurren hizkuntza hazieran.*

— *Gurasoei haien jarduera sozializatzailearen kontzientzia (kritikoa³) sortzen laguntzeko prozedurak sistematizatu, anitzetan, familiek haurrak hiztun bilakatzeko prozesuaren gainean ideia urri eta batzuetan ez zuzenak baitituzte. Gurasoei haien jarduera sozializatzailea bertze gune batzuetan osatzen dela eta hurrek guztien beharra dutela ohartarazi behar zaie. Familiei helarazi behar zaizkien mezu horien emaila legitimatuenetakoa ikastetxea bera da.*

— *Eskolak haurrak hiztun bilakatzeko bidean familien inplikazioa bilatu. Familiak —eta bertan hartzen diren hainbat erabakik— eskolaren lana osatzen ahal du. Familiei haurren euskarazko sozializazioarekin kontzientziatu eta sentiberatzeko mezuak helarazteko modu sistematikoak bilatu: Guraso eskolak, tutoreek gurasoekin egiten dituzten saioak...*

— *Familien heterogeneotasunari ohartu eta guztiendako estrategiak eskaini. Gurasoei haien eskuetan dauden hautuak, eragiteko bideak eta motibatzeak erak ikusarazi.*

— *Haurren harreman eszentrikoei atentzio berezia eman.*

- Haurren egintzaitasunaz ikertu: a) Nola gertatzen da haur talde batean euskara edo erdara harreman hizkuntzatzat ezartzea? Hau da, ingurune erdaldunduetan euskaraz eskolaturik badaude eta eskolatik kanpoko ekintzak euskaraz egiten badituzte, espero dezakegu haurrak beren artean berez euskaraz hastea?; b) Talde dinamikaren zer elementuren arabera gertatzen da hori? Kontu kuantitatibo hutsa da? Zer da gomendagarria, hiru urteko haur

eskolatuberrriak etxeko mintzairaren arabera gelaka antolatzea edo hizkuntza jatorria desberdineko ikasleak hasieratik gelan elkartzea?; c) Zer dio lidergoaren teoriak haur talde natural baten hizkuntza hautuen gainean?; d) Belaunkideen arteko hizkuntza aztura behin finkaturik egonez gero, nola alda daiteke? Komunikazio instituzionalizatuek (ikasgelan eginarazten den hizkuntzak, adibidez) uki al dezakete haur banakoen arteko mintzaira? Zer proposa dezakegu haur euskaldunen talde batean erdara hizkuntza harremana ezarrita egonda euskaraz egiten has daitezen?

- Haurren hizkuntza portaerak aldatzearren komunikazio erdi-instituzionalizatuen jarduerak baliatu (eskolaz kanpoko jarduera ludiko edo kirol arlokoak, erraterako) komunikazio instituzionalizatuen eta haurren erabilera berezkoaren arteko zubi gisa. Horrek transferentzia naturala ekar lezake haur banakoen arteko hizkuntza erabilera berezkora.

- Haurren hizkuntza portaerak euskarara aldatzearren diseinatzen diren jardueretan bi arlo hauek zaindu: a) begirale, monitore nahiz entrenatzaile aritzen direnen prestakuntza landu: hizkuntza dinamizazioa nola egin eta haurren euskarazko erabilera nola sustatu jakin dezaten; c) jarduera horiek duten izaera instituzionalizatua lausoarazi edo ezkutatu haurrek komunikazio ez-instituzionalizatuko egoera batean daudela senti dezatela.

Azken finean, haurrak euskaldun bilakatzeko baldintzei begiratzea da proposamena. Egungo neska-mutikoen euskarazko sozializazio baldintzak ahalik eta onenak, askotarikoak, trinkoenak izaten saiatu behar dugu, euskararekin harreman sakona eta atsegina, gozamenezkoa eta asebetegarria eduki dezaten ahaleginak egin behar ditugu, geroan ere, beren bizitzan hizkuntzari atxikirik joan daitezen, euskara atxiki dezaten. Oraingo umeez beren bideak eginen dituzte, eta euskararen jarraipenarekin inplikaturako orok haurren hautu horiek nolabait elikatu eta ahalbidetzen dituzten baldintza mikro eta makrosoziolinguistiko egokiak beharrezkoak direla ohartu behar du. ●

OHARRAK

1. *Habitusak* gizarte jarraipena azaltzen du, baina nekez aldaketa eta berrikuntza, Patrice Bonnewitzek (2002: 73) adierazi bezala: “Les effets d’inertie et l’hystérésis de l’habitus empêchent de faire de ce concept un outil opérationnel pour décrire les mutations sociales importantes qui se sont produites au cours des dernières décennies”.

**Azken finean,
haurrak
euskaldun
bilakatzeko
baldintzei
begiratzea da
proposamena.
Egungo neska-
mutikoen
euskarazko
sozializazio
baldintzak ahalik
eta onenak,
askotarikoak,
trinkoenak izaten
saiatu behar
dugu,
euskararekin
harreman sakona
eta atsegina,
gozamenezkoa
eta asebetegarria
eduki dezaten
ahaleginak egin
behar ditugu,
geroan ere, beren
bizitzan
hizkuntzari
atxikirik joan
daitezen, euskara
atxiki dezaten.**

2. Jean Claude Corbeil (1980) soziolinguista quebecarraren kontzeptua erabiliz *komunikazio instituzionalizatuak* erakunde batek (Estatuak, eskola edo enpresa batek...) bere kideei zuzentzen dizkien horiek dira. *Komunikazio instituzionalizatuak* harreman hizkuntza aitzinetik ezarrita dute eta kideak horretara egokitzen dira. Horien aldean Corbeilek *komunikazio indibidualizatuak* bereizi ditu. Azken hauek norbanakoen arteko harremanak dira eta, ikertzaile kanadiarraren iritziz, hizkuntza planifikazioaren eraginetik kanpo daude.
3. Chrispek (2005) hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioari eragiten dioten faktoreen artean aita-amen *critical awareness* aipatu du, hots, gurasoak beren hizkuntza jokaerek mintzairaren ondorengoanatzean dituzten ondorioen jakitun izatea.

BIBLIOGRAFIA

- APPEL, R. & MUYSKEN, P. (1987/1990). *Language contact and bilingualism*. London, New York, Melbourne, Auckland: Edward Arnold.
- ARRUTI, I. (1997). Euskararen familia bidezko jarraipena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 22/23, 69-110.
- BARRON-HAUWAERT, S. (2004). *Language Strategies for Bilingual Families. The One-Parent-One-Language Approach*. Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BAYLEY, R. & SCHECTER, S. R. (arg.) (2003). *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies*. Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BENTON, R. & BENTON, N. (2001). RLS in Aotearoa/New Zealand 1989-1999. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective* (423.-450. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BONNEWITZ, P. (2002). *Pierre Bourdieu, vie, œuvres, concepts*. Paris: Ellipses.
- BOURDIEU, P. (1982/1989). *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. France: Fayard.
- CHAMBERS, J. K. (1995/2003). *Sociolinguistic Theory* (2. argit.). Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- CHRISP, S. (2005). Māori intergenerational language transmission. *International Journal of Sociology of Language* 172, 149-181.
- COOPER, R. L. (1989). *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CORBEIL, J. C. (1980). *L'aménagement linguistique du Québec*. Montreal: Guerin.
- DE ROSELLÓ, C.; GALINDO, M. & VILA, F. X. (2002). Algunes consideracions sobre l'adequació del terme *llengua materna*. *Llengua i Ús. Revista tècnica de política lingüística* 24, 94-101.
- DEL VALLE, T. (1988). *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.

- DORIAN, N. C. (1981). *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- ELORTZA, X.; MUNGIA, A.; GOIKOETXEA, N. & PIKABEA, I. (2009). Euskararen transmisioa familia bidez indartzeko tailer pilotua Burretaldea. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 71, 165-176.
- ERIZE, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863–1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- EUSKO JAURLARITZA (1999). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2005a). *Euskararen erabilera eta transmisioa: Olabide ikastolako (Vitoria-Gasteiz) ikasle ohien adibidea: 2004ko iraila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2005b). *Euskararen erabilera eta transmisioa: Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien adibidea: 2005eko otsaila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2008). *EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa. 2001*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2013a). *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA, ISEI/IVEI & SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2013). Arrue proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak.
Sarean: <http://www.irekia.euskadi.net/assets/a_documents/2802/Arrue_Prentsaurrekoa_eus.pdf?1359118341>
- FASOLD, R. (1984/1995). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- FELLIN, L. (2002). Language ideologies, language socialization and language revival in an Italian Alpine community. *Texas Linguistic Forum* 45, 46-57.
Sarean: <<http://studentorgs.utexas.edu/salsa/proceedings/2002/papers/fellin.pdf>>
- FISHMAN, J. A. (1964). Language maintenance and language shift as fields of inquiry. *Linguistics* 9, 32-70.
- (1965/2000). Who speaks what language to whom and when?. In Wei, L. (arg.), *The Bilingualism Reader* (89.-106. or.). London, New York, Holt: Routledge.
- (1972). *The Sociology of Language. An Interdisciplinary Social Science Approach to Language in Society*. United States of America: Newbury House Publishers, inc.
- (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foun-*

- dations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters.
- (arg.) (2001). *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- FRIEDMAN, D. A. (2012). Language Socialization and Language Revitalization. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (631.-647. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- GAL, S. (1979). *Language Shift: Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria*. New York: Academic Press.
- GALINDO, M. & VILA, X. (2009ko negua). Els factors explicatius dels usos lingüístics informals entre l'alumnat català: llengua inicial, xarxes socials, competència i llengua vehicular d'ensenyament. *Noves SL Revista de Sociolingüística*.
Sarean: <http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hm09hivern/docs/Galindo_vila.pdf>
- GARRETT, P. B (2012). Language Socialization and Language Shift. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (515.-535. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- GARRETT, P. B. & BAQUEDANO-LÓPEZ, P. (2002). Language Socialization: Reproduction and Continuity, Transformation and Change. *Annual Review of Anthropology* 31, 339-361.
- GAZTEIZKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA (2010?). *Euskara biziberritzeko plan nagusia*. Gasteiz. 2010-2012. Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala.
Sarean: <<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/33923.pdf>>
- HARDING, E. & RILEY, Ph. (1986/1998). *La familia bilingüe. Guía para padres*. Madrid: Cambridge University Press.
- HE, A. W. (2012). Heritage Language Socialization. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (587.-609. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- HERNÁNDEZ, J. M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- IRAOLA, J. (2002). *Familia bidezko jarraipena. Pasaiako udalerriko azterketa. Lehen zatia: ikerketa kokatzeko oinarriak. Bigarren zatia: Pasaiako udalerriko azterketa*. (2 lib.). Txosten argitaragabea.
- (2004). Familia barruko hizkuntza transmisioa soziolingüistikoki konplexuak eta anitzak diren hizkuntza komunitateetan: Pasaiako udalerrria adibide. *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 53, 151-163.

- JAUREGI, P. & SUBERBIOLA, P. (2009). Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 71, 177-191.
- JIMENO JURÍO, J. M^a (1997). *Navarra. Historia del Euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- JONES, K. & MORRIS, D. (2009). Issues of gender and parents' language values in the minority languages socialisation of Young children in Wales. *International Journal of the Sociology of Language* 195, 117-139.
- KASARES, P. (2010). 20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 101-123.
- (2012a). Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 82, 15-52.
- (2012b). Euskaldun hazi Iruñean. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintza eta komunitate aukerak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 85, 143-158.
- (2014a). Hai camiños para mellorar a transmisión interxeracional da lingua. Traballando en lingua. X Curso de verán sobre dinamización lingüística para a transmisión interxeracional do galego. Uztailaren 9, 10 eta 11, Carballo. Txosten argitaragabea.
- (2014b). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- LARRAÑAGA, I. (1986). La situación del euskera en el ámbito familiar: investigaciones realizadas y en proyecto en relación con la transmisión familiar del euskera. San Sebastián: Siadeco.
- LEE, T. & MCLAUGHLIN, D. (2001). Reversing Navajo Language Shift, Revisited. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective* (23.-43. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- LOREDO & FORMOSO (2014). A fractura da transmisión interxeracional da lingua galega. Canto, cando, como. Traballando en lingua. X Curso de verán sobre dinamización lingüística para a transmisión interxeracional do galego. Uztailaren 9, 10 eta 11, Carballo. Txosten argitaragabea.
- LUYKX, A. (2003). Weaving Languages Together: Family Language Policy and Gender Socialization in Bilingual Aymara Households. In Bayley, R. eta Schecter, S. R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (25.-43. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- MACKINNON, K. (1991). *Gaelic. A Past & Future Prospect*. Edinburgh: Saltire.

- MACKINNON, K. & MACDONALD, M. (1980). *Ethnic Communities: The Transmission of Language and Culture in Harris and Barra*. School of Social Sciences. The Hatfield Polytechnic.
- MARTÍ, F. et al. (2005). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2004). Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak. In zenbaiten artean, *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*. VIII. Jardunaldiak (11.-38. or). Bilbao: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- (2012). Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 84, 121-137.
- MONTOYA, B. (1996). *Alacant: la llengua interrompuda*. València: Denes.
- MONTOYA, B. & MAS, A. (2011). *La transmissió familiar del valencià*. València: Publicacions de l'Acadèmia Valenciana de la Llengua.
- MORRIS, D. (2005). End of Award: Welsh Language Socialisation within the Family. Report for the Economic & Social Research Council, RES 000-22-0611.
Sarean: <<http://www.esrc.ac.uk/my-esrc/grants/RES-000-22-0611/outputs/Read/1aab3729-b599-4ecd-a417-dbb39f31a5cb>>
- MORRIS, D. & JONES, K. (2008). Language socialization in the Home and Minority Language Revitalization in Europe. In Duff, P. A. and Hornberger, N. H. (arg.), *Encyclopedia of Language and Education* (2. argit.) (8. lib.) (2699.-2715. or.). Boston: Springer Science+Business Media.
- NAHIR, M. (1988). Language planning and language acquisition: The "Great Leap" in the Hebrew revival. In Paulston, C. B. (arg.), *International Handbook of Bilingualism and Bilingual education* (275.-295. or.). Connecticut: Greenwood Press.
- NELDE, P.; STRUBELL, M. & WILLIAMS, G. (1996). *Euromosaic. Producción y reproducción de los grupos minoritarios de la UE*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.
- NONAKA, A. M. (2012). Language Socialization and Language Endangerment. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (610.-630. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- Ó LAOIRE, M. (1996). An Historical Perspective on the Revival of Irish Outside the Gaeltacht, 1880-1930, with Reference to the Revitalization of Hebrew. In Wright (arg.), *Language and State. Revitalization and Revival in Israel and Eire* (51.-75. or.). Clevedon, Philadelphia, Toronto, Adelaide, Johannesburg: Multilingual Matters Ltd.
- Ó RIAGÁIN, P. (2001). Irish Language Production and Reproduction 1981-1996. In Fishman (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Re-*

- versing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective (195.-214. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- OCHS, E. & SCHIEFFELIN, B. B. (1984/1992). Language acquisition and socialization. Three developmental stories and their implications. In Shweder, R. A. and LeVine, R. A. (arg.), *Culture Theory. Essays on Mind, Self and Emotion* (276.-320. or.). United States of America: Cambridge University Press.
- (2008). Language socialization: An Historical Overview. In Duff, P. A. and Hornberger, N. H. (arg.), *Encyclopedia of Language and Education* (2. argit.) (8. lib.) (2580.-2594. or.). Boston: Springer Science+Business Media.
- PEASE-ÁLVAREZ, L. (2003). Transforming Perspectives on Bilingual Language Socialization. In Bayley, R. eta Schecter, S.R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (9.-24. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- PUJOLAR, J (1997). Planificació lingüística: un contrasentit?. *Actes del Congrés Europeu sobre Planificació Lingüística*. Barcelona: Generalitat de Catalunya, 356-363.
- SAGARDOY, P. (2008). EAEko euskararen belaunez belauneko familia bidezko transmisioa (2001eko biztanleriaren zentsuko datuak oinarri hartuta). *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 67, 103-116.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra.
- (1981). La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun. *FLV* 37, 19-99.
- SCHIEFFELIN, B.B. & OCHS, E. (1986). Language Socialization. *Annual Review of Anthropology* 15, 163-191.
- (1996). The microgenesis of competence: methodology in language socialization. In Slobin, D.; Gerhardt, J.; Kyratzis, A. & Guo, J. (arg.), *Social Interaction, Social Context, and Language* (251.-264. or.). Mahwah, NJ: Erlbaum.
- SIADeco (1994a). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Lehen txostena (Siadeco [1978] eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia [1991] ikerketetan bildutako datuen arabera). Txosten argitaragabea.
- (1994b). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Bigarren txostena (1991eko zentsuko datuen arabera). Txosten argitaragabea.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida. Erabileraren GPSa*. Soziolinguistika Klusterra.

- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, TOPAGUNEA & URTXINTXA (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena*. Sarean:<<http://www.soziolinguistika.org/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketa.pdf>>
- SPOLSKY, B. (1996). Conditions for Language Revitalization: A Comparison of the Cases of Hebrew and Maori. In Wright (arg.), *Language and State. Revitalization and Revival in Israel and Eire* (5.-50. or.). Clevedon, Philadelphia, Toronto, Adelaide, Johannesburg: Multilingual Matters Ltd.
- SUBIRATS, M. (zuz.); IZQUIERDO, M. J. & MIGUÉLEZ, F. (1991). Transmissió i coneixement de la llengua catalana a l'àrea metropolitana de Barcelona. *Enquesta metropolitana 1986. Condicions de vida i hàbits de la població de l'Àrea Metropolitana de Barcelona*. 20. liburukia. Barcelona: Mancomunitat de Municipis de l'Àrea Metropolitana de Barcelona; Institut d'Estudis Metropolitans de Barcelona.
- URLA, J. (1987). *Being Basque, speaking Basque: The politics of language and identity in the Basque Country (Spain)*. Doktore tesi argitaragabea, University of California, Berkeley, USA.
- VILA, F. X. (1993). *Transmissió dels idiomes en les parelles lingüísticament mixtes*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.
- WEINREICH, U. (1953/1979). *Languages in Contact. Findings and Problems* (9. argit.). The Hague: Mouton Publishers.
- WILLIAMSON, R. C. (1991). *Minority Languages and Bilingualism: Case Studies in Maintenance and Shift*. Norwood: Ablex Publishing Corporation.
- WRIGHT, S. (arg.). (1996). *Language and State. Revitalization and Revival in Israel and Eire*. Clevedon, Philadelphia, Toronto, Adelaide, Johannesburg: Multilingual Matters.
- ZINKUNEGI, J. F. (1995). Euskararen transmisioa Euskal Autonomi Elkartean. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 15, 75-88.